

BILBOKO UDALAK OSTALARITZAKO BEIRAZKO ONTZIAK BIRZIKLATZEA SUSTATUKO DU, ERABILERA BAKARREKO BEIRA-HONDAKINEN % 51 BAITIRA

- **Bihar, irailak 20 (barikua) informazio-kanpaina hasiko da Bilboko ostalaritzako 1.800 establezimenduetan; kanpaina hori abenduan amaituko da, Gabonetako kanpainaren aurretik.**
- **Beirazko ontziak birziklatzearen arloko sentsibilizazio-ekintzak indartzera dator kanpaina hau, birziklatze-tasa handitzeko asmoarekin.**
- **Langile kualifikatuak establezimenduetara joango dira udal ordenantzen berri ematera; hain zuzen ere, ordenantza horien arabera, hondakin-sortzaile handiek nahitaez birziklatu behar dute eta hala egin ezean, isunak jarriko zaizkie.**
- **Establezimenduei edukiontzia emango zaizkie, sortzen dituzten beirazko hondakinen arabera edukiera dutenak, beirazko ontziak birziklatzen laguntzeko.**
- **Modu egokian birziklatzen duten ostalaritzako establezimenduen artean zozketa bat egingo da. Saridunek doako ikastaro batzuk egin ahal izango dituzte Erriberako Merkatuan, Bilboko Ostalaritzako Goi-Eskolak emanda.**
- **Kanpaina honetan ECOVIDRIEN eta Bilboko merkatarien elkarteetako eta Bizkaiko Ostalaritzako elkarteen laguntza izan dugu.**

(Bilbon, 2019ko irailaren 19an). Bilboko Udalak kanpaina berri bat jarriko du abian bihar, barikua, irailak 20 dituela; horren barruan, ostalaritzako 1.800 establezimendu inguru bisitatuko dituzte ostalaritzan beirazko ontziak birziklatzea sustatzeko eta udal ordenantzak betearazteko, ordenantza horien arabera, hondakin-sortzaile handiek nahitaez gestionatu behar baitituzte euren hondakinak.

Gaur egun, ostalaritzak sortzen ditu erabilera bakarreko beirazko hondakinen % 51. Horretarako, 2020rako Europako legeriak ezartzen dituen helburuak -% 50eko birziklatze-tasa- lortzeko eta gizarte jasangarriagora begira jartzeko, ezinbestekoa da establezimenduen konpromisoa. 2018an Bilboko birziklatze-tasa % 46,79koa izan zen. ECOVIDRIK emandako datuen arabera, iaz Bilbon 7.817 tona bildu ziren urian han eta hemen dauden 1.295 edukiontzietan. 2017an baino % 4,10 gehiago.

ECOVIDRIEN laguntzarekin egingo den kanpaina honen helburua da Bilbon beirazko ontzi-hondakinen gaikako bilketa areagotzea, kantitatean eta kalitatean. Baita birziklatzen ez dutenak erakartzea eta errefusen edukiontzietara botatzen diren 5.000 tona beira biltzea. Establezimendu birziklatzaileei gogoraraziko zaie zein hondakin bota behar duten beiraren edukiontzira eta zein ez.

Kanpaina hau burutzeko, Bilboko ostalaritzako establezimenduetatik pasatuko dira jendeak ezagutu ditzan beirazko ontziak birziklatzearen arloko udak ordenantzak. Era berean, birziklapenak ingurumenaren arloan Bilbori dakarzkion onurez jabeazazi nahi dira herritarrak.

Irailaren 20an, barikua, hasiko dira langile kualifikatuak establezimenduetara bisitak egiten. Informazioa emateko eta premiak antzemateko lehenengo fasean establezimenduei edukiontzia emango zaizkie, sortzen dituzten beirazko hondakinen araberako edukiera dutenak, beirazko ontziak birziklatzen laguntzeko; ondoren, auditoretzak egingo dira establezimenduek hondakinak behar bezala bereizten dituzten ikusteko eta arauak bete ezean, bigarren bisitan eskutitz izenduna emango zaie, birziklatzea derrigorrezkoa dutela adieraziz.

Kanpaina honen bidez, hondakinak modu egokian bereizteko eta kasuan kasuko edukiontzietan –barruan, kanpoan utziz gero ezin baitira birziklatu- uzteko eskatzen zaie ostalaritzako establezimenduei. Ostalaritzako establezimenduen laguntza ezinbestekoa da eredu jasangarriago bat eraikitzeko. Horregatik, alde aurretik ekimenaren berri eman zaie Bilboko merkatarien elkarte guztiei eta Bizkaiko Ostalarien Elkarteari, horrela euren kideen artean kanpaina zabaltzen eta informazio ematen lagunduko dute.

Era berean, sortzen dituzten beirazko hondakinen araberako edukierako edukiontzia emango zaizkie establezimenduei, beirazko ontziak errazago birziklatzen laguntzeko. Informazio-kanpainaren ondoren, langile kualifikatuek modu egokian birziklatzen dela ziurtatzeko bisitak egingo dituzte establezimenduetara. Hala ez bada, arauak betetzen ez dituztela ikusiz gero, isuna jarri ahal izango zaie arau-hauste larria egiteagatik. Kanpainaren helburua ez da dirua biltzea, baizik eta jendea jabetzea zein garrantzitsua den birziklatzea eta, bestetik, beira-ontziak errefusen edukiontzira ez botatzea.

Modu egokian birziklatzen duten ostalaritzako establezimenduen artean zozketa bat egingo da. Saridunek doako ikastaro batzuk egin ahal izango dituzte Erriberako Merkatuan, Bilboko Ostalaritzako Goi-Eskolak emanda.

Bilboko Udalak, Zerbitzuen eta Bizi Kalitatearen Sailaren bidez, gaikako bilketaren ehunekoak areagotzea garrantzitsua delako jarri du abian kanpaina hau eta bide batez, eskerrak eman gura dizkie Bilboko merkatarien eta ostalarien elkarteei, kanpainan laguntzearen. ECOVIDIO izan dugu kanpainan laguntzen.

Ostalaritzako sektoreak sortzen ditu gaur egun erabilera bakarreko beirazko hondakinen % 51 eta, hortaz, berebiziko sektorea da birziklatzearen helburuak lortzeko. Horregatik, sektorean ohitura jasangarriak ezartzen jarraitzeak hobekuntza nabarmena izango du klima aldaketaren aurkako borrokan.

Bilboko Udalaren helburua da urian sortzen diren hondakinen gestioa hobetzea; batetik, hondakin gutxiago sortuz, eta bestetik, sortzen diren hondakinak gaika bereiziz. Izan ere, une honetan 5.200 tona beira errefusen edukiontziora botatzen dira eta kanpaina honen bidez lortu nahi da horietatik 2.500 tona, gutxienez, birziklatzea, hartara harro esan ahal

izango dugu Bilboko ostalaritzako establezimenduen % 90 baino gehiagok konpromiso irmoa duela uriaren ingurumenaren alde egiteko, betiere bere enpresa-erantzunkizunetik.

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO PROMUEVE EL RECICLAJE DE ENVASES DE VIDRIO EN LA HOSTELERÍA DEBIDO A QUE GENERAN EL 51% DE LOS RESIDUOS DE VIDRIO DE UN SOLO USO

- **Mañana, viernes 20 de septiembre, comenzará la campaña informativa en los alrededores de 1.800 establecimientos hosteleros de Bilbao y finalizará en diciembre, antes de la campaña navideña.**
- **La campaña reforzará las acciones de sensibilización a los locales en materia de reciclaje de envases de vidrio, con el objetivo de incrementar el porcentaje actual.**
- **Personal cualificado visitará los establecimientos para informar sobre las ordenanzas municipales, que recogen la obligatoriedad de reciclar para los grandes generadores y sanciones en caso de incumplimiento.**
- **Se hará entrega de recipientes de diferentes capacidades para facilitar el reciclaje de residuos de envases de vidrio según el volumen de generación de cada establecimiento, con el fin de facilitar la tarea de recogida selectiva.**
- **Los establecimientos hosteleros que estén reciclando correctamente entrarán en un sorteo y los y las premiadas podrán disfrutar gratuitamente de una serie de cursos que serán impartidos por la Escuela Superior de Hostelería de Bilbao impartidos en el Mercado de la Ribera.**
- **Esta campaña se realiza con la colaboración de Ecovidrio y las asociaciones de comerciantes de Bilbao y la Asociación de Hostelería de Bizkaia.**

(Bilbao, a 19 de septiembre de 2019). El Ayuntamiento de Bilbao pone en marcha mañana viernes, 20 de septiembre, una nueva campaña en la que visitarán alrededor de 1.800 establecimientos hosteleros, para promover el reciclaje de residuos de envases de vidrio en la hostelería y hacer efectivas las ordenanzas municipales que obligan a estos grandes generadores a gestionar correctamente sus residuos.

Actualmente la hostelería genera el 51% del vidrio de un solo uso. Por ello, su compromiso es imprescindible para alcanzar los objetivos de la tasa del 50% que nos marca la legislación europea para el 2020, y caminar hacia una sociedad más sostenible. En el año 2018 Bilbao logró una tasa de reciclaje del 46,79%. Según datos facilitados por Ecovidrio, el año pasado Bilbao alcanzó las 7.814 toneladas recogidas en los 1.295 contenedores que hay por toda la ciudad. Un 4,10% más que en el año 2017.

Esta nueva campaña, que se realiza con la colaboración de Ecovidrio, persigue incrementar la recogida selectiva de residuos de envases de vidrio en Bilbao en cantidad y calidad. Asimismo captar a los perfiles no recicladores y recoger las 5.000 toneladas de

vidrio que van a la fracción resto. A los establecimientos recicladores se les recordará qué residuos se deben depositar y cuáles no.

Para llevar a cabo esta campaña, se pondrá en marcha un trabajo de campo para reforzar el conocimiento de las ordenanzas municipales en materia de reciclaje de envases de vidrio en la hostelería bilbaina. De la misma manera, se promoverá la sensibilización sobre los beneficios ambientales que el reciclaje genera para Bilbao.

Las visitas de personal cualificado a los establecimientos comenzarán a partir de mañana viernes, 20 de septiembre. Tras una primera fase de información y detección de necesidades, en las que se entregarán cubos de diferentes capacidades para facilitar el reciclaje de residuos de envases de vidrio según el volumen de generación de cada establecimiento, se llevarán a cabo auditorías para comprobar que éstos realizan correctamente la separación en origen y, en el caso de que no sigan la normativa, en una segunda visita se les entregará una carta nominativa indicándoles de la obligatoriedad de reciclar.

Con esta campaña se solicita a la hostelería que separe de forma correcta los residuos y que los deposite en el interior de los contenedores correspondiente, nunca fuera de los mismos, ya que en ese caso se imposibilita su reciclaje posterior. La colaboración de los establecimientos hosteleros es indispensable para construir un modelo más sostenible. Por esta razón, se ha trasladado previamente la iniciativa a todas las asociaciones de comerciantes de Bilbao y a la Asociación de Hostelería de Bizkaia, los cuales ayudarán a impulsar la campaña e informar a sus asociados y asociadas.

Asimismo, los establecimientos que lo necesiten recibirán cubos especiales adaptados a los volúmenes de generación de cada establecimiento, con el fin de facilitar la tarea de recogida selectiva. Tras la campaña informativa se procederá a visitar los establecimientos para certificar que están cumpliendo la ordenanza. En caso contrario, el Ayuntamiento podrá sancionar al establecimiento por incumplimiento de la normativa con una sanción grave. Esta campaña no tiene un fin recaudatorio, sino concienciar de la importancia del reciclaje y que el vidrio no acabe en la fracción resto

Aquellos hosteleros que estén reciclando correctamente entrarán en un **sorteo** y los premiados podrán disfrutar gratuitamente de una serie de cursos que serán impartidos por la Escuela Superior de Hostelería de Bilbao, estos cursos se realizarán en el Mercado de la Ribera.

El Ayuntamiento de Bilbao a través del área de Servicios y Calidad de Vida, pone en marcha esta campaña por la importancia que tiene incrementar los porcentajes de recogida selectiva y quiere agradecer a las Asociaciones de Comerciantes de Bilbao y la Asociación de Hostelería de Bizkaia su colaboración en esta campaña. Esta campaña se realiza también con la colaboración de Ecovidrio.

El sector hostelero genera el 51% de los residuos de envases de vidrio de un solo uso, es un sector clave para la consecución de objetivos de reciclado. Por eso, avanzar en la

implantación de hábitos sostenibles en el sector supone una mejora significativa en la lucha contra el cambio climático.

El Ayuntamiento de Bilbao tiene como objetivo la mejora de la gestión de los residuos generados en la ciudad, tanto en la reducción de los mismos como en la mejora de la separación de los generados. Todos compartimos, no solo la conveniencia sino la necesidad de recuperar para el reciclaje al menos 2.500 toneladas de vidrio de las 5.200 toneladas que actualmente van a la fracción resto y pretendemos exhibir con orgullo que más del 90% de establecimientos de hostelería en Bilbao tengan un compromiso firme y decidido por contribuir desde su responsabilidad empresarial al sostenimiento medioambiental de la ciudad.